

POLITIKA ▶ BATASUNAREN MANIFESTAZIOA

Istiluak izan dira Batasunaren manifestazioaren ostean

Parte Zaharrean barrena egin da debekatutako manifestazioa; ondorengo istiluetan zazpi lagun atxilotu ditu Ertzaintzak eta zauritu ugari izan dira



Parte Zaharreko kaleetan barrena egin zuen manifestazioa Batasunak. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



Istiluetan zauritutako emakume bat. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

NAGORE IRASTORZA

Arratsaldeko 16:30ean ehunka lagun eta Ertzaintzaren 20 furgoneta zeuden Bulebarrean, Batasunak deitutako manifestazioaren zain. Ertzaintzak, bozgorailuen bidez, jendeari aldentzeko deia egin zuten eta tentsio giroa nabari zen. Joseba Alvarez eta Fernando Barrera Batasunako kideak Ertzaintzaren buruarekin hitz egiten saiatu ziren, manifestazioa egin zedin. Ezinezkoa zela esan zuten ertzainak, eta une

horretan, Bulebarrean bildutako ehunka lagunak lurrean eseri eta Ertzaintzaren kontrako eta independentziaren aldeko oihuak bota zituzten.

Horren ostean, *Orain herria, orain bakea* leloa zuten pankarta hartu zuten Batasunako eta Baga-Boga ekimeneko ordezkariak eta manifestazioari ekin zioten. Ez ordea aurreikusitako ibilbidea jarraituz, Parte Zaharreko kaleetan barrena baizik. Arazorik gabe bukatu zen manifestazioa Zuloaga plazan.

Ekitaldi politikoan Joseba Alvarezek Batasuna urratsak ematen ari dela adierazi zuen, baina bakerako prozesua «luzea eta korapilatsua» izango dela. «Bide honetan inor ezin da geldirik egon. Urratsak eman behar dira, eta ez dago aitzakia politikorik Batasunak proposatutako bi mahaiak abian jartzeko». Ikasturte politiko berriari begira, «alderdien arteko mahaia osatzea, elkarriketa zabaltzea eta akordioaren bidean urratsak ematea» izango ditu helburu Batasunak, Alvarezk azaldu zuenez.

Istiluak eta zauritu ugari

Manifestazioaren ostean, Ertzaintzak Parte Zaharreko kaleak itxi zituen, bertaratu nahi zutenei bidea moztuz. Hainbat laguneri motxilak miatu zizkien. Arratsaldeko 18:00ak aldera,

500 lagun inguru beste manifestazio bat egiten saiatu ziren Erdialdean, eta Ertzaintzak horien kontrako kargak egin zituen. Hainbat zaborrontzi gurutzatu zituzten manifestariek, eta biri su eman zieten.

Istiluak arratsaldeko zortziak arte luzatu ziren Bulebarrean eta inguruetan. Hamarnaka lagun zauritu zituzten istiluetan. Lau lagun ospitalean ingresatu zituzten, eta gainontzekoak anbulantzian bertan artatu zituzten. Gehienak piloten eta porren kolpez zauritutakoak izan ziren. DYAK IRUTXULOKO HITZARI jakinarazi zionez, 13 asistentzia egin zituen eta 9 lagun eraman zituen ospitalea. Zaurituen artean, Kanadako eta Austriako bi pertsona daude. 66 urteko kanadarrari pilotakada bat eman zioten begian, terraza batean eserita zegoela.

Zazpi atxilotu

Bestalde, Ertzaintzak IRUTXULOKO HITZARI adierazitakoaren arabera, zazpi lagun atxilotu zituen. Lekuko baten arabera, 40 eta 50 urte arteko gizonezko bat lurrera bota zuen Ertzaintzak, eta kolpatu ostean, esku-burdinak jarri eta atxilotu zuten. Beste atxilotuetako bat Josexo Lucas altsasuarra da. Londres Hotelaren parean oinez zihola atxilotu zuen Ertzaintzak.

Barrikadak, harri jaurtiketak eta gomazko pilotak etengabekak izan ziren Bulebarrean, eta arratsaldeko 20:00ak aldera bomba abisua ere izan zen. Ertzaintzak Erdialdeko hainbat kale itxi zituen.

Odon Elorza alkateak istiluak gaitzetsi zituen. «Probokazioen aurrean, donostiarrek festarako eskubidea» dutela adierazi zuen Elorzak.

OMENALDIA ▶ IMANOL GOMEZEN ERRAUTSEN HAIZERATZEA

Imanol Gomezi azken agurra

Gazte altzatarraren errautsak haizeratu zituzten Haizearen Orrazian

NAGORE IRASTORZA

Ehunka lagun bildu ziren atzo Haizearen Orrazian Imanol Gomezi istripuz hildako ETAKo militantearen errautsak haizeratzeko ekitaldian. Gaztearen argakia eta errautsen aurrean, ohorezko aureskua dantzatu zioten hiru dantzarik. Unerik hunkigarriena errautsak haizeratzeko izan zen. Txandaka, senide eta lagunek loreak eta errautsak jaurti zituzten itsasora.



Imanol Gomezen senideak, errautsak eskuartearen dituztela. N. IRASTORZA

PRESOAK ▶



Euskal presoaren aldeko topa

Nagore Irastorza ▶ Donostiako euskal presoaren aldeko topa egin zuten Sarriegi plazan, urtero bezala. Azken urtean espetxetik irteneko preso ohiek zabaldu zituzten txanpain botilak, eta presoaren aldeko oihuen artean, topa egin zuten bertaratutakoek.